



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA
2018.03.27

Tolosako Udaletxean, 2018ko matxoaren 27an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Beloso
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 27 de marzo de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (Lore Agirre Zipitria zinegotziak botoa haren esku utzi du).
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez diren zinegotziak:

Patxi Amantegui Zubiria
Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

- | | |
|--|--|
| 1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko otsailaren 27ko Ohizko Osoko Bilkurakoa. | 1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 27 de febrero de 2018. |
| 2. Cristina Pelaez Errazquin A-k zinegotzi | 2. Toma de posesión del cargo de |



TOLOSAKO
UDALA

- | | |
|--|--|
| kargu hartzea. | concejala de la Sra. Cristina Pelaez Errazquin. |
| 3. Onartzea 2018ko aurrekontuetako diru-laguntzen eranskinaren aldaketa. | 3. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones del presupuesto del año 2018. |
| 4. Itxitako ekitaldiko fakturak onartzea. | 4. Aprobación de las facturas del ejercicio cerrado. |
| 5. Onartzea Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketa. | 5. Aprobación de la modificación de la relación de puestos del Ayuntamiento de Tolosa. |
| 6. Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturiko zehapena: 2017/05 espedientea. | 6. Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2017/05. |
| 7. Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturiko zehapena: 2018UAPS0001 espedientea. | 7. Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2018UAPS0001. |
| 8. Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturiko zehapena: 2018UAPS0004 espedientea. | 8. Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2018UAPS0004. |
| 9. Dekretu honen berri ematea: 2018/472 (2018/1 kreditu gaikuntza). | 9. Dar cuenta del Decreto 2018/472 (habilitación de crédito 1/2018). |
| 10. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko otsailaren 1etik 28ra (2018/274-2018/416). | 10. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 28 de febrero de 2018 (2018/274. 2018/416). |
| 11. EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa: Asuncion klinikaren auzia bideratzeko lan-mahaia osatzea. | 11. Moción presentada por el grupo municipal EHBILDU: Creación de una mesa de trabajo para la resolución del conflicto de la Clínica Asunción. |
| 12. EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa: Pentsio duinen alde. | 12. Moción presentada por el grupo municipal EHBILDU a favor de una pensión digna. |
| 13. Galderak eta eskaerak. | 13. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:



TOLOSAKO
UDALA

- | | |
|---|---|
| 1. Ondorengo akta onartzea:
<u>2018ko otsailaren 27ko Ohizko Osoko Bilkurakoa.</u> | 1. Aprobación de la siguiente acta:
<u>Sesión ordinaria del 27 de febrero de 2018.</u> |
|---|---|

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.

- | | |
|---|--|
| 2. <u>Cristina Pelaez Errazquin A-k zinegotzi kargu hartzea.</u> | 2. <u>Toma de posesión del cargo de concejala de la Sra. Cristina Pelaez Errazquin.</u> |
|---|--|

... Alkateak: "Azkeneko Osoko Bilkuran agurtu egin genuen Maria Lasa eta gaur, berriz, ongi etorria ematen diogu Kristinari Pelaezi. Seguraski elkarlanerako aukera handiak izango ditugu hemendik legealdia bukatu arte. Beraz, ongi etorria Kristina."

Bertaratutakoei jakinarazten zaie Hauteskunde Batzorde Nagusiak, 2018ko martxoaren 14an egindako agiriaren arabera, Tolosako Udaleko zinegotzi izendatu duela Cristina Pelaez Errazquin, EUSKAL HERRIA BILDU taldearen izenean.

Izendapen berriaren arrazoia da Maria Lasa Arruabarrenak bere zinegotzi karguari uko egina, hori ontzat eman zelarik 2018ko otsailaren 27ko Udal Plenoan.

Izendatu berria izan denak aitortu du hautaezintasun arrazoirik ez duela zinegotzi kargua hartzeko, eta betetzen dituela gainontzeko baldintza guztiak.

Ondoren, Udal Idazkariak, 5/1985 Lege Organikoak, ekainaren 19koak, Hauteskundeetako Araubide Orokorra arautzen duenak, bere 108.8 artikuluan xedaturikoa betez, ondoko hau irakurri dio:

Zin egiten duzu edo hitzemande, zure kontzientzia eta ohoreagatik, Erregeari leial izanda, zinegotziaren karguaren eginbeharrak zintzo betetzea, eta Konstituzioa gorde eta gordearaztea, Estatuaren oinarritzko legea den aldetik?

Zinegotziak "Bai, legeak hala behartuta" erantzun du.

Segidan, Cristina Pelaez Errazquin A.k Tolosako udaleko zinegotziaren kargua jabetzan hartu du, EUSKAL HERRIA BILDU taldearen izenean.



3. Onartzea 2018ko aurrekontuetako diru-laguntzen eranskinaren aldaketa. **3. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones del presupuesto del año 2018.**

Parte-hartzeak:

... Alkatea: "Aldaketa da diru-laguntza izendun bat emateko. Jesus Artetxe, hemen daukagu gure artean. Jesus Artetxek bere bizitzaren zati handi bat zuzendu du proiektu solidarioetara, Palestinako egoerari arreta berezia eskainiz. Askotan izanda osoko bilkura honetan, bertan Palestinan eman diren hainbat egoeran berri eman digu zuzenean, berak bizitakoak eta ikusitako egoera ezberdinak, salaketa modura eta solidaritatearen beharra mahaigaineratuz gerraren ondorioz gertatzen diren egoera lazgarrien aurrean Tolosak ere bere alea jarri dezan. Joan den abenduan aurkeztu zuen bere proiektua. Helburua arazo ezberdinak dituzten emakumeei zuzendutako zentro sozial bat eraikitzea da. Emakume asko alargunak dira, beste askok senarrak preso dituztenak eta seme-alaben karga beraien gain dutenak. Gainera, diskapazitatea edo desgaitasun duten hurrei ere tratu duina emateko aukera aurreikusten dute zentro sozial horretan. Proiektua Jenin-en kokatzen da, bertako "Not to forget women society" elkartearekin elkarlanean, bertako lehendakariarekin harreman zuzena du Jesus Artetxek. Dakizuenez, Tolosako Udalak gobernuz kanpoko lankidetzara araututa du ordenantza baten bidez. Baina oraingo honetan erabaki dugu zuzeneko diru-laguntza izendun bat egitea arrazoi jakin batzuegatik: batetik elkarlearen ibilbidea Tolosan izan duena oso inportantea delako, tolosarron elkartasun-kultura indartzeko egiten duten lan guztiagatik, bere inplikazioarengatik eta herritarrek kasua solidarioetan inplikatzeke duen gaitasunagatik eta bereziki laguntzaren urgentziarengatik. Momentu honetan, onartzen ari garen diru-laguntza izendun honekin Tolosako herriak Palestinako lurraldeari babesa adierazi nahi dio eta, bide batez, salatu egiten diren giza eskubide urraketa guztiak lurralde haietan."

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): "Batetik lehendabizi Jesus Artetxeri eskertu eman digun aukera. Abenduan Gizarte batzordera etorri zenean izan genuen aukera proiektua gertutik ezagutzeko. Proiektua ez da orain zerotik hasiko den kontu bat, pauso batzuk eman dituen proiektua da. Alkateak ondo esan duen bezala guk Emakumeen etxea esango genukeena da proiektua. Orubea hor dago, etxearen egitura hor dago eta egin zitzaigun eskaera zen, leihoak eta ateak jarri behar ditugu. Guk konpromiso hori hartu du, nola bideratu hilabete batzuk pasa dira, baina proiektuak merezi du eta Tolosako Udaleko ordezkariok eta herritarrok harro egon gaitzek proiektu horren inguruan, besteak beste, Udal honetan lehentasuneko den alor bat jorratu duelako, izan behar den gure arteko berdintasuna eta bestetik gure gizartean ere oso beharrezkoa den berdintasun hori laguntzeko, balio dezakeelako. Irrikitan gaude ikusteko noiz bukatzen den proiektua, etxea noiz dagoen martxan eta noiz ikusten ditugun han argazki haietan ikusi genituen emakumeak bertan lanean eta bertan bere proiektuak aurrera ateratzen. Olatzek egin duen bezala, salatu, bide batez, inperialismo sionistaren erasoak Palestinako herriari, alor guztietan, bai ekonomikoa bai giza eskubideen kontrako erasoak. Beti izango garela elkartasunean Palestinako herriarekin eta gure babesa izango dutela Palestinako herriaren duintasunen alde borroka egingo duten guztiek."



TOLOSAKO
UDALA

Alkateak hitza eman dio Al-Quds-Jerusalen, Palestinaren Aldeko Elkarteko ordezkari Jesus Artetxeri eta Proiektuaren inguruko informazioa eman die batzarkideei. Bere parte-hartzea espedientean jasota dago.

OGASUN BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 21EAN EMANDAKO IRIZPENA.

2018ko otsailaren 1ean, Gizarte Politikako Batzorde Informatiboan diktaminatu zen Al-Quds-Jerusalen, Palestinaren Aldeko Elkartearantzako diru-laguntza izenduna izatea, "Not to Forget Women Society" proiektua aurrera eramateko.

Hortaz, diktaminatu da Gizarte Zerbitzuetako Nazioarteko laguntzen 2017ko udal aurrekontuetako 0500.491.01.231.00 partidako ataletik 9.000 euro ateratzea eta izendun edo nominatibo bezala izendatzea Al-Quds-Jerusalen, Palestinaren Aldeko Elkartearantz, "Not to Forget Women Society" proiektua aurrera eramateko.

Beraz, honela geratuko da:

0500.491.01.231.00		ELKARTEAK	Nazioarteko dirulaguntzak	72.750,00	Konpetentzi lehiakorra
0500.491.01.231.00	AS/G/19191/2015	AL-QUDS-JERUSALEN, PALESTINAREN ALDEKO ELKARTEA		9.000,00	Izenduna

Hori guztia ikusirik, bozkatu egin da eta bertaratutako guztien aldeko botoak jaso ditu.

- Begoña Tolosa (EAJ): aldeko botoa
- Nuria Carbonel (EAJ) Iñigo Alonsoren izenean: aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): aldeko botoa
- Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): aldeko botoa

Beraz, ondorengoa diktaminatu du eta proposatu du:

Lehen.- Osoko Bilkurak 2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzea goian aipatutako aldaketen arabera.

Bigarrena.- 2018ko diru-laguntzen eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:



TOLOSAKO
UDALA

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazquin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udaltzako aho batez onartu du 2018ko aurrekontuetako diru-laguntzen eranskinaren aldaketa.

4. Itxitako ekitaldiko fakturak onartzea. 4. Aprobación de las facturas del ejercicio cerrado.

OGASUN BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 21EAN EMANDAKO IRIZPENA.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, bere 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontabilitate-ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldian jaso dira, baina 2017ko ekitaldiko faktura data dute.

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2018-02-01	2017-10-06	0500.211.01.231.00	TINTATEGIA DIZDIRA	1705434	Colada sin plancha	50,60 €
2018-02-01	2017-10-14	0500.211.01.231.00	TINTATEGIA DIZDIRA	1705562	Colada sin plancha	25,30 €
2018-02-23	2017-07-12	0500.480.01.231.00	EDURNE BONGOETXEA FARMAZIA	B065425/2017	Gizarte Zerbitzutako botikak (1085 balea)	4,24 €
2018-02-23	2017-11-24	0500.480.01.231.00	EDURNE BONGOETXEA FARMAZIA	B084932/2017	Gizarte Zerbitzutako botikak (1143 balea)	13,08 €

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, bere 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharreri dagokienez.

2017ko abenduaren 31n aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2018ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura-zerrenda hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.

Udaltzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria ,



TOLOSAKO
UDALA

Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** itxitako ekitaldiko faktura-zerrenda.

5. Onartzea Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketa. **5. Aprobación de la modificación de la relación de puestos del Ayuntamiento de Tolosa.**

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *“Kasu honetan Iñaki Letamendia abuztuaren 27an jubilatzen zaigu eta bera txistu irakasle izan da eta baita Txistularien Bandako zuzendaria ere. Bi lanaldi bereiztuak ziren eta asmoa da lanpostu batean bihurtzea. Horretarako lanpostuen zerrenda aldatu beharko litzateke eta hori da orain egitea proposatzen dena.”*

... Nuria Carbonell Miranda, (EAJ-PNV): *“Datorren abuztuaren ez da jubilatzen bakarrik Txistulari bandako zuzendaria eta txistulari irakaslea, baizik Iñaki. Iñaki Letamendia jubilatzen da. Tolosan askok ezagutzen dugu baina Tolosatik kanpo ere oso ezaguna da. Gure aldetik eskerrak egindako lanagatik, jarraitzeagatik gure tradizioak igandero, Tolosako kaleetan zehar jotzen ibiltzeagatik, gure jaietan parte-hartzeagatik, bere umore onagatik. Ez da erraza izango bere tokia betetzea baina ziur gaude zurekin egon diren guztiek lagunduko dutela zuk utzitako bidea jarraitzen.”*

Alkatea: *“Pixka bat aipatzearen Iñaki Letamendia. Tolosako udal txistulari guztiek Iruñeko txistulariekin daukaten harreman horrek urteetan iraun du eta elikatu dute eta errudun inportantenetako bat Iñaki bera izanda. Aurten 50. aldiz joango da Sanferminetara jotzea. Beraz, eskerrak Iñakiri, izango ditugu aukerak berarekin egoteko.*

Idazkariak honako irizpena aurkeztu du:

GIZA BALIABIDE ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 21EAN EMANDAKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

2018ko abuztuaren 27an Iñaki Letamendia Loinaz jauna jubilatzen da, Tolosako Udaleko Txistulari Bandako zuzendaria eta txistu irakaslea. Honela, bere hutsunea betetzeko ordezkapena burutzea guztiz beharrezkoa da, guztia Kulturako zerbitzuburuak egindako txostenaren baitan.



Dena den, antolaketa ikuspegi batetik, komenigarria ikusi da bi lanpostuak bat egitea, kontuan hartuta lanaldi partzialeko dedikazioa dutela bi lanpostuek. Honetarako, hiru pauso emango dira bere ordezkapena egin ahal izateko.

- Lehenik, Lanpostu zerrendan laboralen plantilan dauden "Txistu irakaslea" lanpostua eta "Txistulari Bandako zuzendaria" lanpostua bat egin beharko dira, lehena, % 52ko lanaldian baitago eta bigarrena, aldiz, % 16ko lanaldian; honela, guztira, lanpostu berri honek % 68ko lanaldia izango luke.

- Bigarrenik, ondoren azalduko den bezala, legeak behin betiko izaeraz oraingoz lanpostua betetzen ez duenez uzten, apirilean deialdia egingo da lanpostu berri hau aldi baterako betetzeko.

- Hirugarrenik, 2019. urtean lanpostua Lan Eskaintza Publikoan atera ahal izango da eta behin betiko izaeraz bete.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

a) LANPOSTU ZERRENDA

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, bere 74. artikuluan honela ezartzen du: "*Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares*". Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeko ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena
- Saikapen profesoanalean zein taldeakoa den
- Lanpostuaren eskala
- Lanpostua betetzeko modua
- Ordainsari osagarriak

Lehen aipatutako 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

Bestalde, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, bere 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; saikapen-taldea, eskala, azpieskala



edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

Bestalde, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean ditzuten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitakoren arabera.

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legearen 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBaren 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantila prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantilan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantila aldatzeko prozedura.

b) LANPOSTUAK BEHIN BETIKO BETETZEKO MUGAK: 2017KO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRA

I.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoen Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 10. artikuluan xedatzen du bitarteko funtzionarioen araubidea, honako era honetan:

1. Son funcionarios interinos los que, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia, son nombrados como tales para el desempeño de funciones propias de funcionarios de carrera, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) La existencia de plazas vacantes cuando no sea posible su cobertura por funcionarios de carrera.

b) La sustitución transitoria de los titulares.

c) La ejecución de programas de carácter temporal, que no podrán tener una duración superior a tres años, ampliable hasta doce meses más por las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto.

d) El exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses.

.../...

3. El cese de los funcionarios interinos se producirá, además de por las causas previstas en el artículo 63, cuando finalice la causa que dio lugar a su nombramiento.

*4. En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, **las plazas vacantes desempeñadas por funcionarios interinos deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y, si no fuera posible, en la siguiente, salvo que se decida su amortización.***



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, aipatu Legearen 10.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioen bidez hornitzen diren lanpostuak, Lan Eskaintza Publikoan sartu behar dira, bitarteko funtzionarioa izendatzen den urtean edo hurrengoan, eta era finkoan hornitzen dira edota amortizatu egin behar dira.

Zentzu berean, 781/1986 Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bateratua onartzen duenak, bere 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epe barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorritik. Artikulu horren 2. atalak behin betiko pertsonala izendatzeko ondoko betebeharra ezartzen du:

“2. No podrá nombrarse personal interino para plazas que no se hayan incluido en la oferta de empleo público, salvo cuando se trate de vacantes realmente producidas con posterioridad a su aprobación.

El personal que ostentare la condición de interino cesará automáticamente al tomar posesión como funcionarios de carrera los aspirantes aprobados en la respectiva convocatoria. Sólo podrá procederse al nombramiento del nuevo personal interino para las plazas que continúen vacantes una vez concluidos los correspondientes procesos selectivos.”

II.- Azken urteetako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten mugak ezarri dituzte Legeek Herri Administrazioetan lan eskaintza publiko bidez pertsonal berria sartzeko.

2017ko ekitaldirako, 2018. urtekoa oraindik ez baita onartu, 3/2017 Legeak, ekainaren 28koak, bere 19. artikuluan lan eskaintza publikoen inguruan ondokoa xedatzen du:

“ Uno. 1. La **incorporación de nuevo personal** en el sector público delimitado en el artículo anterior, a excepción de las sociedades mercantiles públicas y entidades públicas empresariales, fundaciones del sector público y consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el Sector Público, que se regirán por lo dispuesto en las disposiciones adicionales décima quinta, décima sexta y décima séptima respectivamente, de esta Ley y de los Órganos Constitucionales del Estado, **estará sujeta a los límites y requisitos** establecidos en los apartados siguientes.

2. Respetando, en todo caso, las disponibilidades presupuestarias del Capítulo I de los correspondientes presupuestos de gastos, en los siguientes sectores y administraciones la tasa de reposición se fijará hasta un máximo del 100 por ciento:

.../...

C) Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Cuerpos de Policía Autónoma de aquellas Comunidades Autónomas que cuenten con Cuerpos propios de dicha Policía en su territorio, y, en el ámbito de la Administración Local, personal de la



TOLOSAKO
UDALA

Policía Local, en relación con la cobertura de las correspondientes plazas de dicha Policía.

.../...

F) Administraciones Públicas respecto del asesoramiento jurídico y la gestión de los recursos públicos.

.../...

O) Plazas de personal que presta asistencia directa a los usuarios de los servicios sociales.

.../...

S) Personal de atención a los ciudadanos en los servicios públicos.

.../...

3. En los **sectores** y **Administraciones no recogidos en el apartado anterior**, la **tasa de reposición se fijará hasta un máximo del 50 por ciento**.

4. Para calcular la tasa de reposición de efectivos, el porcentaje máximo a que se refiere el apartado anterior se aplicará sobre la diferencia resultante entre el número de empleados fijos que, durante el ejercicio presupuestario de 2015, dejaron de prestar servicios en cada uno de los sectores, ámbitos, cuerpos o categorías, previstos en el apartado anterior y el número de empleados fijos que se hubieran incorporado en los mismos, en el referido ejercicio, por cualquier causa, excepto los procedentes de ofertas de empleo público, o reingresado desde situaciones que no conlleven la reserva de puestos de trabajo. A estos efectos, se computarán los ceses en la prestación de servicios por jubilación, retiro, fallecimiento, renuncia, declaración en situación de excedencia sin reserva de puesto de trabajo, pérdida de la condición de funcionario de carrera o la extinción del contrato de trabajo o en cualquier otra situación administrativa que no suponga la reserva de puesto de trabajo o la percepción de retribuciones con cargo a la Administración en la que se cesa.

No computarán dentro del límite máximo de plazas derivado de la **tasa de reposición** de efectivos las **plazas** que se convoquen para su provisión mediante procesos de **promoción interna** y las correspondientes al **personal** declarado **indefinido no fijo mediante sentencia judicial**.

c) ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikularen arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

– Bestetik, TATBaren 127. artikularen baitan, plantila organikoaren prozedura bera jarraituaz, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegunetako epean informazio publikoan eduki beharko da onartutako akordio hau. Alegaziorik ez badago, hau onartutzat joko da behin betiko izaerarekin.

Hori guztia ikusirik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza Batzordeak, Iñigo Alonso, Nerea Letamendia, Joseba Ormazabal eta Cristian Fernandezek aldeko botoekin eta Iñaki Irazabalbeitiaren abstentzioarekin, irizpen hau eman du:



TOLOSAKO
UDALA

IRIZPENA

Lehenik.- Udaleko Lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea, laboralen atalean, "Txistulari Bandako zuzendaria" lanpostua eta "Txistu irakaslea" lanpostua amortizatuaz eta "Txistulari Bandako zuzendaria eta txistu irakaslea" lanpostu bakarra sortuaz, % 68 lanaldian eta honako ezaugarri hauekin:

- Departamentua: Gizartea, Berdintasuna eta Kultura
- Izena: Txistulari Bandako zuzendaria eta txistu irakaslea
- Lanaldia: partziala, % 68.
- Lanpostu mota: ez singularizatua
- Hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data; 3; 2018-03-27
- Soldata: B maila, 8.952,89 euro urtean
- Destino osagarria: 4.635,50 euro urtean
- Berariazko osagarria: 9.750,59 euro urtean

Bigarrenik.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 15 lanegunetan informazio publikoan edukitzea.

Hirugarrenik.- Apirilean deialdia eta oinarriak onartzea, lanpostu berri hau aldi baterako izaerarekin betetzeko.

Laugarrenik.- 2019. urteko Lan Eskaintza Publikoan lanpostu berri honen deialdia behin betiko izaeraz hornitzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du Tolosako Udaleko lanpostu zerrenda.



TOLOSAKO
UDALA

6. Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturiko zehapena: 2017/05 espedientea.

6. Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2017/05.

UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUN BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 22AN EMANDAKO IRIZPENA.

I) AURREKARIAK

F.A.G.en txakurra Iparragirre auzoan aske ibili ohi da hainbat herritarri eragozpenak sortzen dizkielarik; izan ere euren egunerokotasuna baldintzatuta egoteaz gain, animalia jarrera ezegokiaren ondoren jasan behar dituzte. Behin eta berriz jakinarazi zaio jabeari txakurra lotuta eraman behar duela. Hala ere, ez dio eskaera honi inongo erantzunik eman eta ez du behar hainbateko arretarik izan animalia zaindu eta gordetzerakoan.

Udaletxe honetan, 1828/2017 Alkatetza Dekretuaren bidez, zigor espedientea ireki zitaion F.A.Gi, ustez etxe abereen ordenantzaren 9.2.g artikulua hausteagatik.

Dekretuan hamabost eguneko alegazio epea eman zitaion interesatuari, baina ez zuen inolako alegaziorik aurkeztu.

2018ko urtarrilaren 27ko datarekin, instrukzio-egilearen ebazpen proposamena jakinarazi zitaion interesatuari. Honelaxe zioen:

- F.A.G.ek ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko: etxe abereen Ordenantzaren 9.2.g artikulua.

-300,05 euroko isuna jartzea.

Proposamen horretan, interesatuari

I) ANTECEDENTES

El perro propiedad de F.A.G. habitualmente anda suelto por las inmediaciones del barrio Iparragirre, causando molestias a diversos vecinos que ven limitados sus movimientos y que soportan las consecuencias del comportamiento de dicho animal. En reiteradas ocasiones se le ha manifestado al propietario del mismo la obligación existente de llevar atado al perro, no habiendo recibido respuesta satisfactoria a dichas peticiones y no manteniendo la debida diligencia en la guarda y custodia del animal.

En fecha 09 de octubre de 2018, mediante Decreto de Alcaldía 2017/1828 se incoó expediente sancionador a F.A.G. por presunta infracción del artículo 9.2.g de la ordenanza municipal sobre animales domésticos.

En dicho Decreto se le otorgó un plazo de alegaciones de quince días, pero no presentó alegación alguna.

En fecha 27 de enero de 2018 se comunicó al interesado la propuesta de resolución, cuyo contenido era el siguiente.

-Declarar cometida por F.A.G. la infracción tipificada en el artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

-Imponerle la multa de 300,05 euros.

En dicha propuesta, se otorgó al



TOLOSAKO
UDALA

hamabost eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkeztu ahal izateko.

II) ARAUDI APLIKAGARRIA

Epe horretan, interesatuak ez du alegaziorik aurkeztu.

Hori dena kontuan izanik, ondoko irizpen hau onartzea proposatzen zaio Trafiko Batzordeari.

IRIZPENA

1.- Frogatutzat jotzea urriaren 9ko 1828/2017 Dekretuan egotzitako ekintzak.

2.- F.A.G.ek ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko: kalte egin dezaketen animaliak zaintzen eta gordetzen behar hainbat arreta ez izatea. (Etxe abereen udal Ordenantzaren 9.2.g artikulua araberak). Aipatutako arau-haustea larria da.

3.- 300,52 euroko isuna jartzea F.A.G.i.

4.- Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

5.- Irizpena hurrengo Osoko Bilkurara eramatea.

interesado un plazo de quince días, a fin de que formulara las alegaciones que estimara convenientes.

II) NORMAS A APLICAR

En el plazo otorgado al efecto, no ha presentado ninguna alegación.

Basándose en ello, se plantea ante la Comisión de Tráfico la aprobación de esta propuesta de dictamen.

DICTAMEN

1.- Dar por probados los hechos imputados en el Decreto 1828/2017, de fecha 9 de octubre.

2.- Declarar cometida por F.A.G. la infracción consistente en no mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daño (en base al artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola como infracción grave.

3.- Imponer a F.A.G. una multa de 300,52 euros.

4.- Establecer como plazo para el pago de dicha multa el de un mes, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

5.- Trasladar este dictamen a la próxima sesión plenaria. Tolosako ataria

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2017/05 espedienteari dagokion zehapena, animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturikoa.

7. Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturiko zehapena: 2018UAPS0001 espedientea.

7. Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2018UAPS0001.

UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUN BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 22AN EMANDAKO IRIZPENA.

I) AURREKARIAK

Aurtengo urtarrilaren 13an M.C.B.k bere txakurra aske zeraman, beraz, uhal egokiarekin lotuta eraman beharreko betekizuna ez zuen bete. Era berean, 2018 ko urtarrilaren 23an, txakurra lotuta eraman beharra ez zuen bete.

Udaletxe honetan, 257/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, zigor espedientea ireki zitzaien M.C.B, ustez etxe abereen ordenantzaren 9.2.j artikulua hausteagatik.

Dekretu horretan hamabost eguneko alegazio epea eman zitzaion interesatuari, baina ez zuen inolako alegaziorik aurkeztu.

2018ko otsailaren 27ko datarekin, instrukzio-egilearen ebazpen proposamena jakinarazi zitzaion interesatuari. Honelaxe zioen:

- M.C.B.k ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko: etxe abereen

I) ANTECEDENTES

El día 13 de enero de 2018 M.C.B. llevaba su perro suelto incumpliendo la obligación de llevar al perro atado en espacios público. Del mismo modo, el día 23 de enero de 2018, volvió a incumplir con la obligación de llevar al perro atado.

En fecha 20 de febrero de 2018, mediante Decreto de Alcaldía 2018/257 se incoó expediente sancionador a M.C.B. por presunta infracción del artículo 9.2.j de la ordenanza municipal sobre animales domésticos.

En dicho Decreto se le otorgó un plazo de alegaciones de quince días, pero no presentó alegación alguna.

En fecha 27 de febrero de 2018 se comunicó al interesado la propuesta de resolución, cuyo contenido era el siguiente.

-Declarar cometida por M.C.B. la infracción tipificada en el artículo 9.2.j de



TOLOSAKO
UDALA

Ordenantzaren 9.2.j artikulua.

la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

-450,00 euroko isuna jartzea.

-Imponerle la multa de 450,00 euros.

Proposamen horretan, interesatuari hamabost eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkeztu ahal izateko.

En dicha propuesta, se otorgó al interesado un plazo de quince días, a fin de que formulara las alegaciones que estimara convenientes.

II) ARAUDI APLIKAGARRIA

II) NORMAS A APLICAR

Epe horretan, interesatuak ez du alegaziorik aurkeztu.

En el plazo otorgado al efecto, no ha presentado ninguna alegación.

Hori dena kontutan izanik, ondoko irizpen hau onartzea proposatzen zaio Trafiko Batzordeari.

Basándose en ello, se plantea ante la Comisión de Tráfico la aprobación de esta propuesta de dictamen.

IRIZPENA

DICTAMEN

1.- Frogatutzat jotzea urtarrilaren 30ko 257/2018 Dekretuan egotzitako ekintzak.

1.- Dar por probados los hechos imputados en el Decreto 257/2018, de fecha 30 de enero.

2.- M.C.B.k ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko kalte egin dezaketen zakurrak toki publikoetan muturrekorik gabe edo katetik lotuta ez eramatea. (Etxe abereen udal Ordenantzaren 10.1.b artikulua araberak). Aipatutako arau-haustea larria da.

2.- Declarar cometida por M.C.B. la infracción consistente en hallarse el perro de riesgo en lugares públicos sin bozal o no sujeto con cadena (en base al artículo 10.1.b de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola como infracción grave.

3.- 450,00 euroko isuna jartzea M.C.B. ri.

3.- Imponer a M.C.B. una multa de 450,00 euros.

4.- Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

4.- Establecer como plazo para el pago de dicha multa el de un mes, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

5.- Irizpena hurrengo Osoko Bilkurara eramatea.

5.- Trasladar este dictamen a la próxima sesión plenaria.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:



TOLOSAKO
UDALA

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018UAPS0001 espedienteari dagokion zehapena, animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturikoa.

8. Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturiko zehapena: 2018UAPS0004 espedientea.

8. Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2018UAPS0004.

UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUN BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 22AN EMANDAKO IRIZPENA.

I) AURREKARIAK

Otsailaren 7an Ertzaintzaren patruila batek Udaltzaingora deitu zuen esateko pertsona batek arriskutsua den animalia bat muturrekorik gabe zeramala. Udaltzainak identifikatu zuten pertsona hori: J.P.R., NAN: 72605316C.

Udaletxe honetan, 358/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, zigor espedientea ireki zitzaion J.P.R.ri., ustez abereen ordenantzaren 9.2.d artikulua hausteagatik

Dekretu horretan hamabost eguneko alegazio epea eman zitzaion interesatuari, baina ez zuen inolako alegaziorik aurkeztu.

2018ko otsailaren 27ko datarekin,

I) ANTECEDENTES

El día 7 de febrero una patrulla de la Ertzaintza dio parte a la udaltzaingoa de la presencia de una persona que llevaba un animal de riesgo sin bozal. Agentes de la udaltzaingoa identificaron a la persona en cuestión J.P.R., con DNI 72605316C

En fecha 20 de febrero de 2018, mediante decreto de alcaldía 2018/358 se incoó expediente sancionador a J.P.R. por presunta infracción del artículo 9.2.d de la ordenanza municipal sobre animales domésticos.

En dicho Decreto se le otorgó un plazo de alegaciones de quince días, pero no presentó alegación alguna.

En fecha 27 de febrero de 2018 se



TOLOSAKO
UDALA

instrukzio-egilearen ebazpen proposamena jakinarazi zitzaien interesatuari. Honelaxe zioen:

- J.P.R.k ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko: etxe abereen Ordenantzaren 9.2.d artikulua.

-300,05 euroko isuna jartzea.

Proposamen horretan, interesatuari hamabost eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkeztu ahal izateko.

II) ARAUDI APLIKAGARRIA

Epe horretan, interesatuak ez du alegaziorik aurkeztu.

Hau dena kontutan izanik, ondoko irizpen hau onartzea proposatzen zaio Trafiko Batzordeari.

IRIZPENA

1.- Frogatutzat jotzea otsailaren 20ko 358/2018 Dekretuan egotzitako ekintzak.

2.- J.P.R.k ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko: kalte egin dezaketen zakurrak toki publikoetan muturrekorik gabe edo katetik lotuta ez eramatea. (Etxe abereen udal Ordenantzaren 10.2.b artikulua arabera). Aipatutako arau-haustea larria da.

3.- 300,52 euroko isuna jartzea J.P.R.ri.

4.- Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

5.- Irizpena hurrengo Plenoan gehitua

comunicó al interesado la propuesta de resolución, cuyo contenido era el siguiente.

-Declarar cometida por J.P.R. la infracción tipificada en el artículo 9.2.d de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

-Imponerle la multa de 300,05 euros.

En dicha propuesta, se otorgó al interesado un plazo de quince días, a fin de que formulara las alegaciones que estimara convenientes.

II) NORMAS A APLICAR

En el plazo otorgado al efecto, no ha presentado ninguna alegación.

Basándose en ello, se plantea ante la Comisión de Trafico la aprobación de esta propuesta de dictamen.

DICTAMEN

1.- Dar por probados los hechos imputados en el Decreto 358/2018, de fecha 20 de febrero.

2.- Declarar cometida por J.P.R. la infracción consistente en hallarse el perro de riesgo en lugares públicos sin bozal o no sujeto con cadena (en base al artículo 10.2.b de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola como infracción grave.

3.- Imponer a J.P.R. una multa de 300,52 euros.

4.- Establecer como plazo para el pago de dicha multa el de un mes, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

5.- Trasladar este Dictamen a la próxima



izatea.

sesión plenaria.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018UAPS0004 espedienteari dagokion zehapena, animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturikoa.

9. Dekretu honen berri ematea: 9. Dar cuenta del Decreto 2018/472 2018/472 (2018/1 kreditu gaikuntza). (habilitación de crédito 1/2018.

OGASUN BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 21EAN EMANDAKO IRIZPENA.

2018/472 (2018/1 kreditu gaikuntza) Dekretuaren jakinarazpena.

Lehen espedientea kreditu gaikuntza modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauek dira:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	29.369,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		29.369,00

SARRERAK



Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK	29.369,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		29.369,00

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- 10. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko otsailaren 1etik 28ra (2018/274- 2018/416).** **10. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 28 de febrero de 2018 (2018/274. 2018/416).**

Alkatetzak 2018ko otsailaren 1etik 28ra bitartean (2018/274-2018/416) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

- 11. EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa: Asuncion klinikaren auzia bideratzeko lan-mahaia osatzea.** **11. Moción presentada por el grupo municipal EHBILDU: Creación de una mesa de trabajo para la resolución del conflicto de la Clínica Asunción.**

Parte-hartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Nik xehetasun batzuk argitu nahi ditut . Esan nuen lan-mahaia eratzea ondo iruditzen, ikusten nuela, baina soilik iritziak islatzeko eta Osasun Sailari transmititzeko, ez erabakitzeke edo kontsulta popular modukorik egiteko. Konponbideak, erabakiak hartzea edo adostea Eusko Jaurlaritzari dagokio, ez guri. Beraien konpetentzia da, ez gurea. Mila esker.”*
- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Erdaraz hitz egiteko eskatu didatenez: En esta moción se traslada al Pleno lo acordado en la reunión que se celebró el día 12: Juntarnos todos, crear una mesa de trabajo y buscar entre todos una solución. Es un tema que viene de hace años, hay temas pendientes sin resolver, en este momento los trabajadores lleváis tres meses de huelga. En la reunión que mantuvimos el día 12, Iñigo de Podemos estaba de acuerdo, en su momento Cristian también dijo que sí, aunque ahora Cristian no estas de acuerdo. Con los antecedentes que tenemos y teniendo en cuenta de los problemas que tenéis los trabajadores de la Asunción, lleváis tres meses de conflictos hay que buscar una solución. Es un tema que acarreamos desde hace años. Está muy bien hacer una reunión, esta bien pero*



llevamos cuatro plenos tratando los problemas de la Clínica, los trabajadores lleváis tres meses de huelga y según comentabais no ha dado ningún fruto la reunión que habéis mantenido con el Gobierno Vasco. Hay que dar un paso más. Por ello, creo que aunque el Ayuntamiento no tenga ninguna competencia no nos podemos mantener al margen. Es el momento de actuar. Así como se habla de aquella manifestación de hace 30 años donde se reunieron todos los alcaldes de Tolosaldea, de distinto color para reivindicar que las Asunción fuera el centro de referencia, creo que es momento para juntarnos todos, crear una mesa de trabajo, acordar unos mínimos e ir, en este caso al Gobierno Vasco todos de la mano para solicitar una sanidad pública de calidad y gratuita. No nos vale no tener la competencia, la situación es grave y tenemos que actuar. Por ello, solicitamos la creación de una mesa de trabajo porque los beneficiarios somos nosotros, los usuarios de Tolosa y Tolosaldea.”

... Alkatea: *“Martxoaren 12an egin zen bilera irekia. Egia da egun horretan Podemoseko kideak egin zuela proposamena, gainera, oso keinu itsusia iruditu zitzaidan, ez baduzue onartzen altxa, martxa eta banoa, teatrazalituta iruditu zitzaidan ere,. Bide batez esaten dizut baita ere hori. Baina martxoaren 12 egindako bilera horretan iritzi ezberdinak azaldu ziren. Nik uste bi talde oso bereiztuak bata Tolosaldeako ospitalea publikoa behar duela izan urtetan aldarrikatzen duen taldearen eta, beste batetik, langileen aldarrikapenak. aldarrikapen sindikalak. Herritar batek ere jarduera lizentziaren inguruan ere aritu zen eta zerbitzuaren kalitatea beste pare bat herritarrek baita ere. Zerbitzua nolako izan behar duen, doakoa, publikoa eta kalitatezkoa, beste eskualdetako ospitaletan dagoen parekoa: horretan ez daukagu inork zalantzarik. Horretan bat gatoz denok. Zerbitzuari dagokionez, aipatu zen baita ere profesionalen gabezia, nola egoera hori Asuncion klinikan gertatzen zen baina, baita ere orokorrean, gertatzen ari dela beste hainbat ospitaletan. Osoko Bilkura honetan gauden alderdiek ordezkapena dute baita ere eskumena duen organoan, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean. Langileak ere bertaratu ziren batzordera bere aldarria eta kezka bertan aurkezteko. Ni neuk Osasun sailburuarekin, Klinikako zuzendaritzarekin bilerak egiten ditugu eta jarduten gara, oraindik ere, dauden konfliktu horien konponbidean jartzeko bidean eta uste dut bidea hori dela. Adibide gisa, mahai osatu behar baldin bada, han osatu beharreko mahai izango litzatekeela kasuan. Adibide gisa hezkuntza sistema irakaskuntza kalitatea aztertzeke eta irtenbideak adosteko eskumena duenak antolatu ditu horrelako foroak, Euskal Eskolaren Kontseilua, edo balorazioko taldeak, e.a. Bestalde, Osasun sailak, eskumena duena esparru honetan, legez antolatu du baita ere ESiko taldea. Bertan, mahai horretan, parte partzen dugu ordezkari politikoak, alkateak, baita ere profesionalak elkartzeko, zuen mahai horretan sartzen ez dituzuenak, eta zerbitzua bertan positiboki baloratu izan da kanpoan utziz publiko eta pribatuen osagarritasunaren eredu horrek baliagarria den zerbitzu publikoak emateko garaian. Hori horrela ikusita ba guk ere pentsatzen dugu mahai osatzekoetan han organoa duen eskumenean osatu beharko litzateke. Horregatik, ezezkoa botatu dugu mozioa.”*

Jarrain gatzeleraz azaldu du orain arte esandakoa.

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *Egia da Eusko Legebiltzarrean Osasun Mahai badagoela, baina guk, hala ere, proposatzen dugu Tolosan eta Tolosaldean mahai antolatzea eta gero joan behar den tokira joan. Hori da proposamena, ez bakoitza bere alderdiarekin hitz egitea. Uste dut arazoa oso bertakoa dela eta ikusarazi egin*



behar genuke. Hemen gaudenok, bueno Cristianekin ere hitz egin beharko genuke, baina sindikatuak, Podemos alderdia eta Toparen aldetik ez genuke arazorik izango mahai horretan. Bai ikusten dut zuengan. Zuk esan duzun modura, ados baldin bagaude, publikoa, doakoa eta kalitatezko osasungintza nahi badugu, uste dut horrekin eseri gintezkeela eta hortik abiatu eta hitz egin hitz egin beharrekoekin. Esaten duzuen guk proposatuko mahaian ez daudela profesionalak, profesionalak langileak dira. Langileen errepresentazioa uste dut dela gehien ezagutzen duguna direla. Azkenengo bileretan, azkeneko hiru edo lau plenoetan hemen batetik ateratzen ziren Eusko Jaurlaritzako datuak eta bestetik langileenak. Eta nik bietatik, errespetu guztiakin Eusko Jaurlaritzaren zenbakiei eta estatistikei, nik, langileei sinesten diet gehiago. Onartu behar arazoak daudela, guri iristen zaigun bezala zuei gobernuan egonda gehiago iritsiko zaizuela. Beraz, uste dut guk sinesten dugun mahai horren beharrean. Jarraian gazteleraz adierazi du esandakoak.”

... Alkatea: *“Ados gaude zerbitzua publikoa, doakoa eta kalitatezkoa izan behar duela eta hori horrela izatea Asuncion klinikan izatea ahalbideratzen duena da Eusko Jaurlaritza egiten duen kontzertazioaren bidez. Bestela izango genuen klinika pribatu bat. Ez litzatekeena izango behintzat doakoa. Doakoa jakinda gure sistemaren barruan dagoela eta euskal sistemak antolaketaren barruan antolatu dagoen bezala. Aipatu dut baita ere publiko-pribatuaren osagarritasuna eta hori gu mahai gainean jartzen dugu. Osagarritasuna ondo egin behar da, hori ere horrela da. Baina guk horretan ez dugu, publikoaren alde egiten badugu ere osagarritasunean ere sinesten dugu. Hori da, agian, aldea. Langileak esan dudanean ESiko langileez ari nintzen, baita ere profesional direlako eta profesional guri harreman normalean ESiko mahaiaren bitartez iristen zaigulako alkateei, alderdi ezberdinetako alkateei eta beti baloratu izan da ondo. Horregatik aipatu du eta errespetu guztiakin ere, baita nik ere, Igor, Eusko Jaurlaritzaren datuak ez badituzu sinesten nekez ulertuko gara mahai baten inguruan zu eta ni.”* *Gazteleraz aipatu du esandakoa.*

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *Mahaia ez eratzeko arazoa baldin bada ESI ez dagoela guk planteatuko dugu ESI sartzea. Hala ere, gauza horietaz mahai baten inguruan hitz egiten da. Esan duzu ere Eusko Jaurlaritzak ematen dituen zenbakiak ez ditudala sinesten, esan dudana da hemen izan dugun festa zenbakiakin, Topak eman dituenak, hemen dauden aldeak, nik bietatik langileek emandakoak sinesten ditudala. Eta zuk ere bai. Bai zuk eta bai nik. Jarraian hau bera gazteleraz aipatu ditu eta gaineratu: no podemos decir que no hay problemas. Por ideología defenderíamos lo público y y vosotros también defendéis lo publico que si tiene que ser concertado? Hemos defendido lo público, pero el problema no es que el servicio sea concertado, el problema es que el hospital que tenemos no da calidad, cumple que es público y es gratuito pero no da calidad. Y da problemas, entre ellos aquí estamos con los trabajadores que llevan tres meses de huelga, algo hay, no se puede decir que da calidad y que no hay problemas.”*

... Alkatea: *“Uste dut egiten diren baieztapenekin kontu pixka bat ere eduki behar dela, Igor, kontu pixka bat baita ere. Zerbait badagoela esan daiteke, langileen egonezin bat badagoela eta erreibindikazio sindikalak badaudela eta horrek eragin dezakeela zerbitzuan. Zerbait badagoela mamu bat bezala utziak, baieztapen borobilak egitea zerbitzua txarra dela gaur egunean, ez nintzateke ausartuko, uste dut ez dela egia. Uste dut, eta, baieztapen horiekin kontu handia eduki behar dela iruditzen zait*



TOLOSAKO
UDALA

gehienbat ordezkari publikoak garen heinean. Nere proposamena mahai hori dagokion lekuan osatu behar dela, besterik ez.”

- - - - -

Igor Ezenarro Balda, EHBilduko zinegotziak mozioa irakurri du. Honela dio:

“Asunción klinikaren auzia bideratzek lan-mahaia osatzea

Asuncion Klinika pribatuak ematen duen osasun zerbitzuak, herriko eta eskualdeko erabiltzaile, eragile, alderdi politiko eta baita Klinikako langileengan sortzen duen kezkari irtenbide bat bilatzeko beharra nabarmen agertu zen Martxoaren 12ko Udalbatza aretoan egin zen Osasungintzako Batzar Irekian.

Kezka hori dela eta, eragileek bileran eginiko proposamenak kontuan hartuta, Asunción klinikaren egoeraz eta auziaz gogoeta egiteko mahai zabal bat antolatzea egokia izan daiteke. Izan ere, Tolosalderako defendatzen dugun osasun-zerbitzu publiko, doakoa eta kalitatezkoa bermatzea da Batzarrean juntatu ziren guztien helburua

Guzti honengatik mozio hau aurkezten dugu, Udalbatzak Osoko Bilkuran

ONARTU DEZAN:

Eskualdeko Udalak, gizarte-eragileak, Klinikako langileen ordezkari diren sindikatuak, eta Alderdi politikoak bilduko dituen LAN MAHAIA eratzea, Tolosaldeako Osasun zerbitzua aztertzeko eta arazoari konponbide bat adosteko.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **ez du onartu** Asuncion klinikaren auzia bideratzeko lan-mahaia osatzeko EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa.



TOLOSAKO
UDALA

12.EHBILDU taldeak aurkezturiko 12.Moción presentada por el grupo mozioa: Pentsio duinen alde. municipal EHBILDU a favor de una pensión digna.

EHBildu taldeak, 2018ko martxoaren 26ko idatziaren bitartez, eztabaidarako aurkeztu zuen Pentsio duinen alde izeneko mozioa erretiratu egiten zutela eta, eta egindako eskaerari erantzunez, mozioa gai zerrendatik kendu da.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko mozioa aurkeztu da eta gaiaren premiatasuna bozketara jarri da:

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Abstentzio botoa: Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengo absolutuz onartu du gaiaren premiatasuna.

13. EAJ/PNV eta EHBILDUren taldeak 13. Moción presentada por los grupos Kataluniako egoeraren aurrean aurkezturiko mozioa. municipales EAJ/PNV y EHBILDU ante la situación de Cataluña.

Parte-hartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *"Independentzi judiziala errespetatzen dugu eta justiziaren erabakiak onartzen ditugu, guk negoziaketa eta elkarrizketa berreskuratzea eskatzen dugu eta hori lortzeko lana egiten jarraituko dugu. Hemendik PSCko alderdikideei elkartasun osoa adierazi nahi diet bere herriko etxe batzuetan pintaketak eta abar izan dituzte eta. Mila esker."*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *EHBilduk mozioa babestuko du. Katalunian dagoen egoerari buruz, anali asko eta kontrajarriak izan litezke zergatik iritsi garen egoera honetara. Baina garbi dagoen gauza bakarra, eta ez dut nik esaten, Amnesti Internazionalak, Nazio Batuen erakundeak, estatu mailako lege mailako juristek esaten dute, momentu honetan Kataluniako prozesua judizializatzen ari den bezala legea hausten ari dela eta PPa prebarikazioan*



TOLOSAKO
UDALA

erortzeko zorian dagoela. Esaten denean independentzia judiziala, benetan Cristian, barregura sartzen zait. Barne Ministroak hurrengo egunean ezingo duela lehendakariyai izan eta biharamunean epailea lehendakariyai izatea ebazten duenean, sekulako pelikula asmatuta.

Herritar bat baketsu baten eta ekintza demokratikoa errebelio bihurtuz eta bere argudiotan Tejerok emandako estatu kolpearekin parekatuta hori da irakurtzen da eman duen azkenengo autoan. Momentu honetan Espainian arriskuan demokrazia dago eta Montesquieu bere hilobitik aterako balitz zur eta lur geldituko litzateke ikusita estatu honetan. Eta hori ulertzen ez duen demokrata ba bere hilobia egiten ari da. Izan ere lehenago kataluniarrak izango dira eta gero euskaldunok... Nik horretan, egia esan behar badizut Espainiako ezkerak ez du ikusten arazoa ez dela Katalunia, Katalunia sintoma bat da. Arazoa beste bat da, da Espainiako eliteen demokrazia eza edo sasidemokrazia. Nola ulertzen duten estatu hau funtzionatu behar duela eta nola ulertzen duen demokraziaren funtzionamendua eta horren atzean ez dago independentzia judizialik. Hortaz, bat egiten dugu mozioarekin eta gainera, mozio honek, pertsonalki ukitzen nau, Oriol Junkerasen postua hartu nuen Europako Parlamentuan. Aldamenean izaten nuen eserita talde bileretan, proiektu asko egin genituen elkarrekin eta biak ezagutzen ditu ondo, beste ez nituen ondo ezagutzen, bi horiek ondo ezagutzen nituen, pertsona zentzuzkoa, paketsuak eta bere herriarentzat hoberena nahi dutenak. Eta momentu honetan daude delitu faltsuengatik akusatuta eta hori demokratik ezin du onartu. Benetan ikusten ari gara kontrakoa, alegia, nolabait batzuk ari dira babesten egoera hori, akzioz edo omisioz, baina babesten ari dira momentu honetan Espainian gertatzen ari den inboluzio demokratikoa.”

... Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV): *“Egun Katalunian gertatzen ari dena ikaragarria da sinesgaitza esatea baino demokratikoa izan daitekeen zein estatuetan. Ez da zilegi herritarrak legea eskuan delarik aukeratu dituen ordezkariak preso egitea. Euren ideien defentsa modu baketsuan egite hutsagatik. Ordezkari horiek kartzelatzeak gainera esan beharreko haien bozka eman dutenen askatasuna ere gatibu dela orain. Politika jada ez dirudi ideiak elkartu eta adosteko balio duen ariketa. Aitzitik bigarren mailara pasa da ideia hori eta ondorioz botere banaketa gaizki ulertu duten estatu batekin egiten dugu topo Are gehiago politikaren egiten duen Estatu da eta bertako epaileak dira gure legezko ordezkariak menpe hartu eta mugatzen dituztenak. Izan ere, legea euren nahiera darabil estatua. Atxiloteta hauek ez dute gatazkaren egungo egoera arintzen, ez eta laguntzen ere. Kartzelak ez ditu ez animoak ez pentsamenduak, ez ideiak isiltzen. Amaitzeko, adierazi nahi dugu bat egiten dugula Kataluniako herriarekin haren legezko aspirazioaren bidean eta gure errespetua eta elkartasuna helarazi nahi diogu herri borondatea modu baketsuan defendatzeagatik nolabaiteko mehatxuak sufritzen dituen orori. Eta bukatzeko argi dugu gu Kataluniarekin, gu Euskadirekin.”*

Alkateak EAJ/PNV eta EHBILDUren taldeak Kataluniako egoeraren aurrean aurkezturiko mozioa irakurri du. Honela dio:



TOLOSAKO
UDALA

“1. Tolosako Udalak bere kezka eta erabateko arbuioa adierazten ditu Carles Puigdemonten atxiloketa eta Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa kartzelatzeko agindua dela eta, Auzitegi Gorenak martxoaren 23an, ostirala, emanak biak. Salbuespenezko bi neurri horiek gehitu behar zaizkio Oriol Junqueras, Joaquin Forn, Jordi Sanchez eta Jordi Croixat lehendik jasaten ari diren kartzelatze prebentiboari, eta hori ere zentsuratzen dugu, oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen dituelako.

2. Tolosako Udalak salatzen ditu herritarrek aukeratutako hautetsien kartzelatzeak, behin eta berriz gertatu direnak, izan ere, beren eskubide politikoak ukatzen ari zaizkie, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak agerian utzi duen bezala Jordi Sanchezen kasuan. Era berean, bere egiten du, sekulako kezkaekin gainera, Amnistía Internacionalek jarduketa judizial hauei buruz egin duen balorazio kritikoa, gehiegizkoak baitira leporatutako karguak, neurritz kanpokoak baitira baldintzarik gabeko kartzelatze prebentiboak eta ohiz kanpokoak baita epaitzeko modua.

3. Tolosako Udalak bere babes eta elkartasuna adierazten die atxilotu eta kartzelatuei, beren familiei, beren erakunde politikoei eta sozialei, eta Kataluniako gizarte osoari, eta berehala askatzeko exijitzen du.

4. Tolosako Udalak adierazten du erabakitzeko eskubidea aplikatzea eta Kataluniako herritarrek erabakitakoa errespetatzea dela egoerari konponbidea emateko bide bakarra eta salatu egiten du Espainiako gobernuak konponbide demokratiko horri bidea itxi izana.

5. Tolosako Udalak erabaki honen berri emango die Espainiako eta Alemaniako gobernuari.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria (ordezkariari emanda) Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazquin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Aurkako botoa: Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Kataluniako egoeraren inguruan EAJ-PNV eta EHBildu taldeak aurkezturiko mozioa.



TOLOSAKO
UDALA

14. Galderak eta eskaerak.

14. Ruegos y preguntas.

Atal honetan ez da, ez galderarik, ez eskaerarik izan.

Besterik gabe, 21:00etan, bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, idazkari naizen honek, ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA